


noaua



ARGAZKIA: NOAUA



EUSKARALDIA

Euskaraldiaren 4. edizioa maiatzaren 15etik 25era ospatuko da / 03



AISIOLA

Aisialdiko hezitzaile ikastaroa antolatu dute Udarregin / 17



NOAUA

1936ko gerraren arrastoak aztergai, larunbateko ibilaldi gidatuan / 20

Emakumeon Topaketa, "elkar ezagutu eta sareak josteko xedez" / 22



Aginagako jaien inguruko gehigarri berezia / 10-15

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

NOAOA
BIDAIAK



IRTEERA 2025eko martxoan

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Praktika onak sustatzen: BERRERABILPENA

- ▶ Usurbilgo Garbigunean berrerabilpen gunea dago: ondo dauden gauzak utz ditzakezu, edo han dagoen zerbaite hartu
- ▶ Materiala astelehenetik larunbatera eraman dezakezu hara
- ▶ Aldiz, materialen bat hartu nahi izatekotan, soilik ostiralean egin daiteke (goiz eta arratsalde)



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



Euskaraldirako prestaketa lanak, martxan

Irailaren 26an Eibarren egini-ko Euskaraldia On! topaketen baitan, herrien izen-ematea zabaldu dela iragarri zuten.

Euskaraldia posible egiten duten boluntarioak, euskara elkarteetako kideak, herritarrak eta teknikariak bildu ziren aurreko astean, herrietan aktibazioan eragiteko gako berriak jasotzeko. Badator beraz, Euskaraldiaren edizio berri bat.

Maiatzaren 15etik 25era

Laugarren edizioa, estreinakoz, maiatzaren 15etik 25era ospatuko da.



Aurreko astean Eibarren egini-ko topaketen, herrietako izen-ematea zabaldu dela iragarri zuten. Euskaraldiaren web orrialdearen bidez egin behar da, euskaraldia.eus helbidean.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Urriaren 3tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxe-ko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 10ean osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrera eramango dute.

1969ko kinto bazkaria, urriaren 26an Patrin

Urriaren 19a baino lehen eman behar da izena, 50 euroko ordainketa eginez: ES32 3008 0259 154771916121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan izen-abizenak zehaztea eskatu dute. Bazkari egunean 12:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Atxegaldeko Mahaspildegia elkartean.

1960an jaiotakoak topaketa

Talde bat sortu dute, hurrengo urtean beteko dituzten 65 urteen harira topaketa bat antolatzeko.

Talde horretan parte hartu nahi duenak deitu dezala 655 720 666 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali dezala telefono zenbaki horretara.

1955. urtekoak urriaren 19an batuko dira

Urtero bezela, "1955. urtean jaiotakoak urriaren 19an biltzeko aukera izango dugu, Patri jatetxean".

Izena aldeztu aurretik eman behar da ordea, urriaren 12a baino lehen, telefonoz edo whatsapppe:

- 675 00 64 45 (Maribi).
- 615 76 04 58 (Patxi).

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Iraultzarik ederrena

Ezgaitasunen bat duten pertsonak "betiko ahantziak" izan dira aditu batek esan zuen bezala. Idazki ugariaren arabera, antzinako Grezian, espartarrek Taigeto mendiaren tontoretik botatzen omen zituzten ezintasunen bat zuten pertsonak. Zorionez, zibilizazioa hedatzen joan den neurrian hori oztopo ugari gaituz eta aurreiritziak salbatuz, kontzientzia sozial berri bat sortzen aritu da gaitasunik ezaren bat pairatzen zuten pertsonen mendeetako diskriminazioaren kontra. Iturri barbaro horrek Kristo aurretik ia V. mendera arte jarraitu zuen.

Gaur paralinpiar atletak kontzientzia aldaketa eder horren enbaxadoreak dira. Beren balentriak mundua berotzen eta inspiratzen du eta birfinkatu pertsona askorentzat zeintzuk diren giza posibilitateak. Gizarteratze eta aukera sozialen arloan ez dago ekimen bat bera ere Paralinpiar Jokoei hainbat pertsona ahalduntzeko gaitasunik duenik. Horregatik, Paralinpiar Jokoei ezintasunen bat duten pertsonen beren eskubideak lantzen laguntzen diete. Iraultzarik ederrena dela esan genezake, izan ere, gizarteratzearen aldeko borrokarik handiena baita.

Parisko Paralinpiar Jokoei abuztuaren 28an hasi ziren eta 12 egun "magikoetan" iraun zuten. 4.000 atleta bildu zituzten. Kirol ekimen bat baino gehiago dira paralinpiarrek: aukera apar-

ta eskaintzen dute munduaren atenez kirolean eta ezgaitasunean jar dezagun.

Gaurko atleta paralinpiarren gehiengo kirolari profesionalak dira eta errendimendu handiko entrenamendu programetan parte hartzen dute, beren olinpiar homologoek bezala. Honek asko hobetu du beren kirol maila eta kirol paralinpikoa zaharkituta uzten ari da ezgaitasunaren inguruan genituen estereotipo zaharrak.

Olinpiar Jokoei eta Paralinpiar Jokoei eta logotipoa ezberdinak dira. Su olinpiarra Greziatik abiatzen da, izan ere Olinpiar Joko modernoak antzinako Grezian inspiratzen baitira. Paralinpiar sua, aldiz, Ingalaterratik, izan ere Ludwig Guttman neurologo britainiarrek kirol lehiaketa bat antolatu baitzuen bigarren Mundu Gerran zauritutako soldaduei errekupeazioan lagundu ahal izateko. Berak zuzentzen zituen ospitaleetan eratu zuen. Txapelketa hau izan zen Paralinpiar Jokoen jatorria, nahiz eta ofizialki 1960an hasi ziren. Logotipoa "Agitos" bezala eza-

gutzen da eta "mugitzen naiz" esan nahi du latinez. Gaur egun, ikur bat baino gehiago da. Kirolak islatzen duen esperantzaren, gaituztearen eta batasunaren ezaugarria da.

Gaur egun, Paralinpiar Jokoei hauek, munduko kirol ekitaldi handien artean sartzen dira eta edizio bakoitzak gero eta interes handiagoa pizten du ikusleengan; gainera, aukera profesional eta gizarteratzeko kirol posibilitateak sustatzen ditu.

Ondo ikusi dugun bezala, Paralinpiar Jokoei inoiz baino estaldura mediatiko zabalagoa dute munduan. Munduko atleta paralinpiar onenen balentriak planeta osoko milaka milioi pertsonari ematean, komunikabideek lagundu egiten dute ezintasuna duten pertsonen buruz kontzientziatzen.

Marie Amélie Le Fur hiru aldiz paralinpiar txapelkun izan da. Bere hitzekin amaitu nahi nuke hausnarketaxo hau. Honela zioen duela denbora gutxi: "Kirola estimulu bat da. Pertsona asko ezagutu ditut kirolari esker eta horietako batzuk oso une gogorak igaro dituzte eta denek indar handia erakutsi. Horretan datza kirolak eta, batez ere, maite dudana zerbait da. Hori da halaber, nahi edo behar duten gazte ezinduei egin nahi diedana, funtsezkoa baita ikuspegi positiboa izatea, ezgaitua zarenengan gizarteak ezartzen dizkizun aurreiritzi eta estereotipoen aurre egitea".

"PARALINPIAR JOKOEI INOIZ BAINO ESTALDURA MEDIATIKO ZABALAGOA DUTE MUNDUAN"

Datorren astean abiatuko da katekesia

Izena emateko epea irailaren 29an amaitu zen. Katekesi saioak aldiz, urriaren 11n abiatuko dira. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, Parokiaren korreo elektronikoaren bidez (salbatoreparrokia@gmail.com) edo telefonoz (943 361 239) jaso dezake.

Bilera Gaztelekuan

Irailaren 9az geroztik 12 urte-tik aurrerako gazteei zuzenduriko udal zerbitzua zabalik da. Urtero ikasturte hasieran egin ohi duten moduan, gurasoentzako aurkezpen ekitaldia iragarri dute urriaren 2rako San Inazio 3an kokaturiko egoitzan bertan, arratsaldetik 18:30etan. Informazio gehiago bideotatik jaso ahal da: Gaztelekuan bertan, gaztelekuausurbil@gmail.com helbidean, edo 688 713 838 telefono zenbakian.

II. Joan Mari Torrealda beka deialdia

"Euskal kultura azterketa gaur", hortxe kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea xede duen Jakin Fundazioaren eta Usurbilgo Udalaren beka deialdiaren bigarren edizioa da.

Epea: urriak 21

Interesdunek urriaren 21era arteko epea dute proiektuok aurkezteko. Informazio gehiago jakin.eus atarian.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Urantz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
urantz@urantz.com USURBIL



Urriaren 7an irekiko da izena emateko epea. ARGAZKIA: UDALA.

Brigadako operario gisa jarduteko enplegu eta formazio programa iragarri dute

Beterrri-Buruntzako enplegu planaren barruan, udal brigadetan operario gisa lan egiteko formazioa jaso eta lanaldi osoko lanpostuak eskainiko dira, bost hilabeterako: Usurbilen kasuan, bi lanpostu izango dira.

Programa honen helburua da herriko langabetuak lan merkatuan txertatzea. Usurbilen kasuan, lanaldi osoko bi lanpostu eskainiko dira, bost hilabeterako, aurtengo abenduan hasi eta 2025eko maiatzera arte. Lanbide kudeatuko ditu programan parte hartzeko eskaerak eta udal iturriek aditzera eman dutenez, "urriaren 7an irekiko da izena emateko epea".

Formazioa Lasarte-Orian

Aurtengo programak bi zati izango ditu: formazioa eta enplegua.

Formazioari dagokionez, EAGI Gipuzkoako Eraikuntzako Lanbide Eskolak prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskainiko du, Lasarte-Oriako bere zentroan, azaroaren 4tik abenduaren 13ra bitartean.

Bi enplegu, Usurbilgo brigadan

Bestetik, prestakuntza gainditzen dutenek udal brigadetan lan egiteko aukera izango

dute, abendutik maiatzera arte.

Betebeharreko baldintzak

Programa Usurbilen bizi diren pertsonal langabetuei zuzendua dago, eta bi lanpostuetako bat emakumeentzat izango da. Parte hartu ahal izateko hiru baldintza bete behar dira: Lanbiden lan eskatzaile gisa izena emanda egotea, Usurbilen errolatuta egotea eta 2023an programa honen edo gazte enpleguko programaren onuradun ez izatea. Urriaren 7an bertan banatuko da, etxetik, programaren xehetasunak azaltzen dituen eskuorria.

Beterrri-Buruntzaren enplegu plana Lanbidek diruz lagundua da, eta horrek kudeatuko ditu izen-emateak: urriaren 7tik aurrera eman ahal izango da izena, Lanbideren Enplegu atalean.

Informazio gehiago:

- Udaleko Enplegu saila
- 943 371951
- enplegu@usurbil.eus



Sarek iragan asteko mobilizazioan iragarri izuen ekimen berria.

'Behin betiko' dinamika abiarazi du Sarek

Urtarrilaren 11n Bilbon, "Behin betiko. Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza", aldarripean egingo den manifestaziora begira da Sare. Egunotan aurkeztu dute mobilizazio hori eta baita horren bueltako dinamika.

Bakeari ateak irekitzeko unea

"Bakeari, konponbideari eta elkarbizitzari ateak behin be-

tiko irekitzeko unea dela eskatzera gatoz. Azken hilabeteetan hasitako bidea jarraitu eta euskal gizartearen gehiengo batzen gaituen giza eskubideak errespetatu, euskal presoen auziari behin betiko aterabidea eman behar zaiola aldarrikatzera gatoz", berri eman zuen Usurbilgo Sarek iragan ostiraleko elkarretaratzean.

"Zenbat lo" liburuaren aurkezpena

Haur batek kartzelarekin eta preso duen amarekiko duen hartuemana. Hauxe da Nekane Txapartegi preso ohiaren "Zenbat Lo" album ilustratua. Txapartegiren beraren eta bere alabaren historian dago oinarritua. "Afektuak eta jolasak hala testua nola ilustrazioak blaitzen dituzte gaztetxo zein helduentzako obra poetiko eder honetan".

Urriaren 7an, Potxoenean

Txalapartak argitaraturiko sortze lan hau aurkezteko ekitaldia antolatu du Usurbilgo Sarek urriaren 7an, astelehenarekin, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean. "Zuen gogokoa izango delakoan ekitaldian parte hartzerari animatzen zaituztegu", egin zuen gonbita Usurbilgo Sarek, irailko azken ostiraleko elkarretaratzearen amaieran. Ekitaldian Nekane Txapartegik

berak parte hartuko du, Iraitz Lizarraga idazlearekin eta Iزارo Lizarraga irudigilearekin batera.

Oroimen historikoari ekarpen feminista

Hurbileko gaia jorratuko du hitzorduak antolatzaileek gogorazi moduan. Izan ere, "usurbildar batzuk bizitakoa da", oroitarazi zuten ostiral luntzeko mobilizazioan. "Albumaren aurkezpenaz baliatu nahi dugu haur literaturan ezkutuan geratu izan diren gaiak azalera ekartzeko. Kartzelaratzeaz hitz egingo dugu, ama eta alabaren bortxazko banaketaz, euren arteko komunikazioa mantentzeko borrokaz...".

Modu honetan, "Zenbat lo" album ilustratuaren bitartez, "memoria historikoari ikuspuntu feministatik geure ekarpena egin nahi diogu".



Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako lantaldea.

Zaintza arreta eredua, eraldatze betean

Herri zaintzaileagoa izateko bidean da Usurbil, orain arteko zaintza arretaren eredua eraldatzeko azken urteotan egindako hausnarketari eta lanketari esker. Barnetik, hurbiletik bizitzen ari da prozesu hau Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako lantaldea. Haiekin izan da NOAUA!

Herri hau egiten ari den bide horren helburua argia dela adierazi diote NOAUA-ri; "hausnarketa horretatik nola egin dezakegun pertsonen bizi egoerak eta bizi-kalitatea hobetzea". Argi diote, eredu horren "ardatz nagusia, pertsona erdigunean jartzea da, bere nahiei eta beharrei erantzuteko".

Kalezarko zaintzadun etxebizitzan auzune Egurtzegik edota handik hurbil, belau-naldiarteko etxebizitza komunitario Txirikordak zaintza ekosistema berria irudikatzen laguntzen duten moduan, baliabideoz gain, hainbat egitasmo abiarazi dituzte; merkataritza edo jai zaintzaileagoen alde bideratu duten lanketa hor da, astearteroko ibilbide osasuntsuen "goazen kalera" egitasmoa... Egun,

aurreko urteetan definituriko bide-orrian zehaztutako "ildoak eta helburuak" jorratzen ari dira.

Herritik, herriarekin

Argi diote, erronka hau gizarte osoarena da. "Hasierabatean irudikatzen zen zerbitzu, baliabide eta profesionalen koordinazio lan baten moduan, baina hortik herri zaintzaileara igarotzen joan gara", gaineratu dute. Hori hala izateko,

**"ARDATZA
PERTSONA
ERDIGUNEAN
JARTZEA DA,
BERE NAHIEI
ERANTZUTEKO"**

eredu honen gizarteratzea gaketzat jotzen dute, "ulertzea zertaz ari garen eta zergatik uste dugun egokiagoa dela jendea horrela artatzea. Argi dugu pertsonentzat onuragarria izango dela". Horretan dihardute, ikusgarri egiten. "Herri mailan, zaintza eta zaintzak dituen erpin guztiak mahaigaineratzeak, ikusgarri egiteak hausnarketa sustatzen du herrian. Azkenean, une batean edo bestean denoi

**"HERRITIK
ERAIKITZEA,
HERRIAREKIN
BATERA, HORI DA
ERRONKA
NAGUSIA"**

egokitzen zaigu zainduak izatea edo zaintzea. Elkar zaintzak gure bizitzetan suposatzen duen guztiak, nola nahiko zenukeen zaindua izan eta horrek dakarren guztia gizarteratzeak garrantzia du. Eragiten du ez bakarrik zuregan pentsatzea, baizik eta baita besteengan ere; zeinek zainduko nau, nola zainduko nau, zer nolako baldintzetan...".

Horregatik, Usurbil herri zaintzaile izateko egiten ari den prozesu sakon eta luze honetan, argi dute, "gure eredu ez da erakunde edo enprekin bakarrik eraiki nahi. Herritik eraikitzea, herriarekin batera, hori da erronka nagusia".

Lantaldeetan

Hasieratik hau guztia ahalbidetu duten hainbat lantalde dituzte jardunean. Prozesu honen lidergotza daraman gizarte zerbitzuekin batera, "jende dezente ari da lanean". Jardunean dituzten languneen artean dira, zaintza zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileena, komunitatean eragiten diharduen bilgunea, gizarte zerbitzuen eta anbulatorioaren arteko koordinazioa bideratzen duen langune soziosanitarioa edota "prozesua bere osotasunean baloratu eta egokitzen penak egitea" sustatzen duen talde estrategikoa.

Eraldaketa betean

"Gu ere ikasten ari gara", adierazi digute gizarte zerbitzuetako langileek. Eraldaketa betean dira, eginiko lanketa hau guztia, urteotako bide-orria "inplementatu eta sistematizatzeko tresnak sortzen eta lantzen. Pertsonak beharretik soilik ez, haien bizi proiektu eta nahietatik artatzen saiatzen. Horrek bultzatzen du, adibidez, artatu beharreko pertsonen eginiko galderak desberdinak izatea", baita era koordinatuan lan egitea ere. Horretarako, ordea, "lanketa handia egin behar da, orain arteko lan egiteko modu ba-

tzuei bueltatxo bat eman behar zaio". Eraldaketa hau gizarteratu nahi dute. "Nahi duguna da egiten ari garen lanketa hau eragileek, gugana datozenek ere ulertzea eta horretarako hainbat kontu partekatuzetik abiatu behar dugu". Bizi-planen kontzeptua jarri digute adibide gisa. Izan ere, gizarte zerbitzuetara "datoz bizi-plan baten irudikatzea baino gehiago, une zehatz batean zaintzarekiko duten arazoari irtenbide bat emateko baliabide edo laguntza bila; larri batzuetan, familiarrean dituzten baliabideekin egoera gehiago sostengatu ezin dutenean".

Hortxe kokatu nahi dute hain zuzen, guztion artean hedatu nahi duten hausnarketa: zaintza arreta, oinarrizko zaintza beharretatik haratago doan kontzeptu zabalagoa dela ulertzea, "gizarte zerbitzuetara datozenean ez ikustea gu baliabide hornitzaile soil gisa. Gizarte langileak ez gara soilik zerbitzuak kudeatzen dituzten profesionalak, akonpainamendu bat egiten dugu".

Komunitatea lehentasun

Atzera bueltarik gabeko prozesua da honakoa, ziurtatu digutenez. "Sinetsiak gaude jendearentzat honek bizi-kalitatean onurak ekartzen eta ekarriko dituela". Baina elkarrizketan zehar sarritan aipatu duten moduan, hau dena gizarteratzen segitzea ezinbestekotzat jotzen dute. Izan ere, orain arteko "zaintza eredu familista" eraldatzen doa, gizarte zaharkitzen eta zaintza beharra areagotzen ari da.

Eraldaketa bide horretan, erronka bat baino gehiago dituzte; zaintzan dihardutenen lan baldintzak duintzea hain-



Eraldaketa betean dira Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetan.

bat kasutan eta duinak diren kasu batzuetan eredu berrira egokitzeko gehitu diren zereginen aitortza. Bestalde, komunitatea indartzearen garrantzia azpimarratu digute; "komunitateak egin dezakeena guk egiten ari garen bizi plan horiekin nola uztartu, nola egin daitekeen aztertzea, zeinek eta nola parte hartu behar duen zehaztea". Komunitatea hain zuzen, prozesu horretako languneetako bat da. Hori indartu eta komunitateaz ari garela "zaintza nola txertatu gizarteko esparru

guztietan", horretan eragin nahi dute.

Gainerako bilguneak ere indartu nahi dituzte, haietako bat berriz martxan jartzearekin batera. "Senideek zer esan asko dute honetan guztian. Haiek galdu genituen prozesuan uneren batean. Ez da erraza, baina langune hori berreskuratzeko ahaleginean ari gara". Zaintzaile profesionalen langunea ere sortu nahi dute. Jada "emakume migra-
tuekin lanketa egiten hasi gara, zeri-kusi zuzena dutelako", gizarte zerbitzuen lantaldetik

"SINETSIK GAUDE HONEK BIZI-KALITATEAN ONURAK EKARTZEN ETA EKARRIKO DITUELA"

"PROZESUAN PARTE HARTZEN ARI GARENAK, NAGUSIKI, EMAKUMEAK GARA"

NOAUA!ri aditzera eman diotenez.

"Bidean goaz"

Gizonezkoak ere interpelatu nahi dituzte oraindik guztiz feminizatua dagoen zaintzaren alor zabal honetan inplikatzera. Izan ere, "prozesu honetan parte hartzen ari garenak nagusiki emakumeak gara". Al-datuko ez den beste erronka bat, tokikotasunarena. "Usurbilen eta Usurbilgo errealitatek eta Usurbilgo errealitate begira ari gara lanean. Zer nolako herri zaintzailea den eta izango den prozesu honetan dabilzanon artean osatuko dugu. Usurbilgo tokiko ekosistema da hau, hemengoa, hemengo herritarren eta zerbitzuen ekarpenetatik eraikitakoa".

Eta abiapuntutik hona sortutako galderei erantzuten segi nahi dute aurrerantzean ere; "zer nolako gizarte sortu nahi dugun" mahaigaineratzen jarraitu nahi dute. Izan ere, "gizarte osoari, beste gune desberdinetan ukitzen dio zaintzaren gaiak; esaterako, belaunaldiartekotasuna lantzerako orduan, aniztasuna, berdintasuna, lan-baldintzen erronka...".

Bide horretan sortzen diren galderei erantzuten ahalegin du nahi dute. "Hasi ginenetik bide-orri bat genuen, egokitzen eta osatzen goazena. Gaian sakondu ahala, gai eta galdera gehiago ditugu mahai gainean". Argi dioten moduan, dimentsio handikoa da Usurbil eraldatzen doan zaintza arreta eredu, guztiok zeharkatzen gaituena. Garrantzitsuena, ordea, nabarmendu dutenez, hauxe; atzera bueltarik gabe, "bidean goaz".

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK



8:00-20:30 Astelehenerdik - Asteazkenera
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 36 04 66

txirriStra



PLATER KONBINATUAK
BOKATAK PINTXOAK

TABERNA

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



Lehen urtea bete du Egurtzegik. "Urte oso polita izan da", zaintzadun etxebizitzaren auzuneko zuzendariaren esanetan.

"Egurtzegin pertsona dago erdigunean"

Herri hau eraldatzen doan zaintza ekosistemaren ispilua da Egurtzegi, Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berria. Inauguratu zutenetik uztailean lehen urtea bete zuen aipatu eremuak. Bertako zuzendari Jaione Artiedarekin bildu da hedabide hau.

"Urte oso polita izan da, ilusioz beterikoa, emozio polit askokoa", adierazi dio NOAUA!ri Egurtzegiko zuzendari Jaione Artiedak. Iazko urte amaieratik, urte hasiera honetatik eremua martxan dute, "normaltasun osoz ari gara".

Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako lan taldeak azaldu moduan, orain arteko zaintza eredu iraultzeko herri honekin lana txalotu du. "Lan handia dago egin eta hori goraiatzeko da". Lan-keta hori gabe, gaineratu duenez, "ez dut uste hain erraz hau dena sortuko zenik". Egurtzegiko irekieratik urtebetera, behin baino gehiagotan ziurtatu digunez, "sinergia handiak sor daitezke, proiektu handi bat da". Jorrazteke den bide luzeaz jabetuta, "pau-soak poliki" ematearen ga-

rrantzia nabarmendu du, herri zaintzaileagoa izateko bidean esperientiaz aldatzeko finkatzen joatea; "hau ez da esprinta, iraupen-lasterketa bat baizik".

Herri honetan egindakoak, Artiedaren esanetan, "ezin du salbuespena izan. Eskubide bat da". Zaintza ereduaren ematen ari den eraldaketak gogorarazi digunez, "beti izan beharko du begirada pertsonengan jarrita", Egurtzegin egunerokoa egiten duten moduan. Zaintzadun etxebizitzaren auzunean, "nahi duguna da egoiliarrek sentitzea hemen bertan bizi direla, haiena egitea lekua", etxean bizitzen egongo balira bezala. Ez haiek bakarrik, denok; "gizarte osoak ulertu behar du hau bizitzeko toki bat dela", edozein dela ere zergatia, ja-

torrizko bizilekutik irten behar dutenentzat. Bizilekuotan, "pertsona dago erdigunean bere behar eta nahiekin, berak du protagonismo osoa" eta bere bueltan, zaintza sarea; profesionalak nahiz bere hurbileko sare soziala. Zaintza sare honetako kide "denon artean talde lanean aritu behar gara, batera joan behar gara", nabarmendu dio hedabide honi Egurtzegiko zuzendariak. Ildo horretan, adierazi duenez,

"PERTSONAK HONA DAKARREN SARE SOZIALA GURETZAT OSO GARRANTZITSUA DA"

"hemen, zaindua den pertsonaren sare soziala bertan egon daiteke, zaintza gurekin batera ematen. Pertsonak hona dakarren sare soziala guretzat oso garrantzitsua da".

Komunitatean

Horrez gain, baita komunitate baten parte direla sentiaraztea ere. Izan ere, garai bateko eraikin isolatu eta sarritan hesituen irudi hori hautsi du Egurtzegik. Hartueman oso politak sortzen ari dira hain zuzen. "Herriko jende asko gerturatzen da. Arrasaldeetan familiak etortzen dira", Artiedak nabarmendu duenez. Jaietan zenbait ekitaldi ere eremu hau izan zuten gelokietako bat. "Haur eskolatik hona etortzen dira hamaiketako egin eta jolastera. Uda-erregi ikastolarekin iaztik hartuemanetan gara, Esperientzia Eskolakoekin ere bai. Lanbide Heziketakoak etorri dira". Horiek denak, Artiedaren esanetan, "adibideak baino ez dira, sinergia gehiago ari dira sortzen". Urrunagotik etorritakoak ere sarri ari dira bisitatzen Egurtzegi. "Ikusmin handia dago ez soilik sektore barruan. Elkarrekin, fundazioak... etortzen dira. Bisiten eskaera piloa jasotzen ari gara. Bertatik bertara ikusi nahi dute. Erakargarria zaie" Usurbil jorrazten ari den bidea.

"Izan dadila hau bidea"

Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako lan taldeak eginko aurreikuspen bera egin digu baita Artiedak. Zaintza beharra handitzen joango da etorkizun ez oso urrunean. "Ez gara kontziente geure bizitza une batetik bestera alda daitekeela eta erabat dependiente izan gaitezkeela. Etapa hau ez dugu ikusi nahi". Horregatik, dio herri hau egiten ari den eraldaketa prozesuak ezin duela hemen geratu. "Gatozen errealitatetik pauso handiak eman dira. Askoz gehiago dugu egiteko, baina izan dadila hau bidea".



Zaintzari lotutako iazko greba feminista orokorrari buruzkoa izango da Emakumeon Etxeko ekitaldietako bat.

Eskaintza zabala, Emakumeon Etxean

Urriaren 2ko "Cuidado Resbala" dokumentalaren proiektioarekin zaintza hizpide izango duen zikloari ekin dio Pelaioeneko Emakumeon Etxeak. Urtarrilera arteko programazioa kaleratu du. Eskaintza zabal horren berri duzue lerrootan.

Urriak 5, larunbata Emakumeon Topaketa

- 11:00-13:00 Talde dinamika.
- 13:00-14:00 Bea Egizabal umoregilea.
- 14:00 Luntxa.

Urriak 14, astelehena

- 18:00 June Fernandezek "Aingeruak eta neskameak (haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feminista)" liburuaren aurkezpena egilearekin.

Urriak 16, asteazkena

- 16:30 "En tránsito" dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. Dinamizatzailea: Bidez Bide elkarte.
- Zehaztasunak: "Dokumental honetan, Nikaraguan bizi diren adin txikikoen eta nerabeen errealitatea aztertzen da (Ocotal eta Managua), baita jatorrizko herrialdeko zaintzaile-

na eta Gipuzkoan bizi diren haien amena ere. Era berean, nazioz gaindiko harreman horren ondorioei buruz hitz egiten du, eta zaintzen kate globalen errealitatea islatzen du".

Azaroak 7, osteguna

- 18:00 Hitzaldia: "Zaintzaren pedagogia". Hizlaria: Nora Salbotx.
- Zehaztasunak: "Urte luzez, zaintzaren esparrua gutxietsia izan da hezkuntzan. Gaur badakigu, feminismoaren ekarpenari esker, zaintza hezitzailea dela eta zaintzaren pedagogia patriarkatua eraisteko heziketa guneetan baliatu beharreko tresna dela".

Azaroak 26, asteartea

- 17:30 "Bakarrik Bai da Bai" Legearen inguruko hitzaldia,

Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunen harira, Irule abokatuak taldearen eskutik.

Azaroak 28, osteguna

- 18:00 Hitzaldia: "Urtebete greba feminista orokorretik. Eta orain zer?". Hizlaria: Elene Lopetegui.
- Zehaztasunak: "Urtebete pasatu da Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba feminista orokorra deitu zue-

"JUNE BAONZAREN AMA TA ASUNAK PROIEKTUAK AMATASUNAREN IDEALA DESERAIKI NAHI DU"

netik. Egun historikoa izan zen, greba orokor batek zaintza lanak izan baitzituen hizpide. Horrek utzitako aztarnak aztertuko ditu solasaldiak, eta etorkizuneko eronketan arreta jarri".

Abenduaren 12tik 19ra

- Erakusketa: "Ama ta asunak".
- Zehaztasunak: "June Baonza Pagaldai (Durango, 1979) artistaren *Ama ta asunak*-proiektuak amatasunaren ideala deseraiki nahi du, amatasunaren praktika bizigarriagoa egiteko erreferente eta diskurtso ugari eskaintzearekin batera".
- Abenduak 12, 18:00 Irekiera eta egilearekin solasaldia.
- Abenduak 19, 18:00 Hitzaldia: "Amatasunak, beste amatasunak eta ahaidetasun berriak". Hizlariak: Elixabete Imaz eta Miren Aranguren.

Urtarrilak 18, larunbata

- 19:00 "Hitz Esana" emanaldia, Mejillon Tigre kolektiboaren eskutik.

Zerbitzuak

Urriak 23, azaroak 20, abenduak 11

- 15:00-18:00 Aholkularitza juridiko eta psikosoziala.
- Urriak 7 eta 21, azaroak 4 eta 18, abenduak 2 eta 16
- 17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua.

Informazio gehiago:

- Facebook: Usurbilgo Emakumeon Etxea
- Twitter: @UsurbilEmakumea
- Instagram: @usurbilgoemakumeonetxea
- E-posta: emakumeonetxea@usurbil.eus
- Telefono zenbakia: 943371112.
- Helbidea: Belmonte kalea, 8 (Pelaioeneka, Kalezar).

Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 10:00-13:00.
- Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.



Larunbat honetako protagonistak oilasko biltzaileak izango dira. Helduak goizeko 6:00etan abiatuko dira Atarialde elkartetik. Gaztetxoak aldiz, 11:30ean Mapildik.

Aginaga jai giroan murgiltzear da

Urriak 4, ostirala:

San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamai-ketakoa Aginagako sagar-dotegian. Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek girotuko dute ekitaldia.
- 18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!
- 19:00 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa plazan.
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
- Bitartean, XL. toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorrak.

Urriak 5, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.

- 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik irten-go dira.

- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:30 Kaleak alaituz, Fanfarrikant.
- Bitartean, herri poteoa.
- 21:00 Herri afari bikaina: -Sarrerak Arraten salgai 30 eurotan helduena eta haurrena 12 eurotan. Egunean bertan, 40 eurotan.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Erromeria frontoian: Itzal.
- 03:00 Dj Jotatxo Eliza Zaharrean.

Urriak 6, igandea

- 16:00 XLI. Mus Txapelketa Irekia Eliza Zaharrean (Parte hartzeko izen-ematea 15:30ean hasi eta 16:00etan amaituko da).
- 18:30 Bingo Musikatua zuzenean gaurko eta lehengo abestiak entzunez! Eskola Txiki aurrean.

- 19:00 Haragi egosi, txori-zo eta sagardo banaketa.

Urriak 11, ostirala:

Umeen eta Gazteen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.
- 13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa frontoi txikian.
- 16:00 Puzgarriak ipiniko dira frontoian.
- 17:30 Txokolata goxo-goxoa.
- Ondoren, eguraldiak laguntzen badu, apar festa eta buruhandi gaizto-gaizto.

TXUPINAZIOA OSTIRAL HONETAN BOTAKO DUTE, ARRATSALDEKO 18:30EAN, ELIZA ZAHARREKO BALKOITIK

toak bustita eta bero-bero haurrak etxera bidaltzeko. Argi ibili!

- 19:00 Musikaz girotutako poteoa.
- 21:00 Gazte afaria Atarialde Elkartean. Izena-ematea urriaren 4ra arte egongo da zabalik eta Instagram bidez egin beharko da.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertua Eliza Zaharrean: Bide Batez erromeria taldea.
- 03:00 Dj Davila.

Urriak 12, larunbata:

Erriorearen eta Kintoen Eguna

- 09:30 "Gozatu errioreaz": Uretako ekintzak: piragua, alan paseoak eta arraunean ibiltzeko aukera izango da, musikaz girotuta eta haiaiketakoarekin.
- 11:45 Trainerilla txapelketa.
- 19:30 Elektropottotte elektrotzaranga.
- 00:00 Kontzertuak frontoian: Bele eta Herenegun taldeen eskutik.
- 03:30 DJ ZKNBrothers Eliza Zaharrean.
- 08:00 Errefus bilketa.

Antolatzailea:

Aginagako Jai Batzordea.

Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



Ondo pasa San Praixkuetan!



☎ 676 899 812

Erriberako Kalea 7, Aginaga
20170 GIPUZKOA

Bokatak
eta razioak

**GAU OSOAN
ZE HAR!**



URDAIRA

Sagardoa

Ondo pasa
San Praixkuak!

☎ 943 37 26 91

📍 AGINAGA

📱 @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

Ondo pasa
San Praixkuetan!



KARABANAK



NAUTIKA

KARABANAK

Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA

Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraiantautika.com - info@noraiantautika.com



Judith Perez Lamela eta Iban Bernal Gomez, Greta eta Alai seme-alabekin.

Kataluniako familia bat omenduko dute Aginagako jaien hasieran

PEREZ BERNAL SENDIA AGINAGAKO JAIEN HASIERAKO OMENDUAK

Urtebete Aginagan bizitzen daraman argazkiko sendia omenduko dute Aginagako jaien hasiera ekitaldian. Kataluniatik etorritako sendiarekin izan da NOAUA! hitzordu honen bezperatan.

Nondik etorri zineten Aginagara?

Judith Perez Lamela: Torde-ran (Bartzelona) bizi izan ginen 18 urtez. Gustura ginen baina bizimodu aldatu nahi genuen. **Iban Bernal Gomez:** Zumaia-koa naiz. Duela 20 urte joan nintzen bertatik Pirinioetara bizitzera. Azken urteotan hona etortzen aritu gara. Aginaga etortzearen asmoa da Txalako Igor ezagutu genuelako Bartzelonan ikastaro bat egin. Lagunak egin ginen. Uda partean nahiz gabonetan familia ikustera etortzen gine-nean Igorrekin geratzen ginen. Lantzen ari zen Arrillaga Txikiko proiektua aurkeztu zigun. Hona etorri gara, baratzan lan egitera, bizimodu berria pro-

batzera. Esperientzia berri hau bizitzeko gogotsu gara.

Urtebete egin duzue Aginagan. Zer nolako balantzea egin dezakezue?

J.P.L.: Bilatutako aldaketa bat izan zen. Bagenekien klima, hizkuntza, eskola, lagun eta etxe aldaketa izango zela. Bagenekien leku polit batera gentozela, horretaz gozatzen ari gara. Badaude egun batzuk herrimin gehiagokoak, hango lagunak gehiago faltan sumatzen ditugunak. Harremantarako garrantzitsua den hizkuntza ere hesi bat izateari uztea espero dugu pixkanaka. Haurrek ere haien aldetik asko jarri dute baina ez da erraza

izan, ikasgela berri batean ia ulertzen ez duten hizkuntza desberdinarekin topo egin dute, baina hor egon dira. Hasieratik oso gustura eta oso babestuak sentitu gara Aginagako komunitatean, lehen egunetik kontuan hartu gaituzte. Horrek aurrera jarraitzeko kemena ematen du.

"HASIERATIK OSO GUSTURA ETA OSO BABESTUAK SENTITU GARA AGINAGAKO KOMUNITATEAN"

I.B.G.: Lehen urtebeteko tar-tea eman genion geure buruari egokitzen hasteko. Beste urtebete eman behar diogu orain asentatzeko.

Herri txikia izatea lagungarria izan zaizue?

J.P.L.: Nik uste baietz. Ikusgarritasun handiagoa duzu eta segituan ezagutu ditzakezu baliabideak, lekua... Modu horretan, errazagoa da toki berri batean kokatzea. Eremu berde honetan bizitzeko gogoia genuen. Geografikoki leku freskoago eta euritsuago baten bila etorri gara.

I.B.G.: Elikadura ere bazen baita puntu garrantzitsu bat. Oso urte bizia izan da. Sagarraren eta sagardoaren kulturaren barneratu gara; sagarra bildu, sagardo eta muztioa ekoiztu dugu. Usurbilen da-goen bizitza soziala ere gustatu zaigu.

Irekitasunez jokatzeko gakoia izango da ezta bizi proiektuz aldatzean?

I.B.G.: Bada jendea leku berean bizitzea gustuko duena. Guk beste aldaketa bat egitea nahi genuen.

J.P.L.: Bizitza bakarra da eta proba egin nahi genuen, mundura ireki. Munduan zenbat etxe, leku eta jende jator geratzen zaigu ezagutzeke? Espiritu abenturazale horrekin eman dugu pauso hau.

Nola jaso duzue Aginagako jaietako hasiera emateko gonbita?

I.B.G.: Sorpresaz. Babestuak sentitu ginenez, beste pauso bat da.

J.P.L.: Ohorea da, gudan pentsatu dutelako.

Zertarako baliatu nahi zenukete une hori?

J.P.L.: Gudan pentsatu dutela eskertzeko, Aginagan pozik garena adierazteko.

I.B.G.: Hona etorri ginen urtemugarekin egokituko da. Berez ospatu nahi genuen; txupinazoan denok batera ospatuko dugu.



San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia



**URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!**

Berezitasuna; Sagardotegiko menua

Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.

Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...

Ezkontzetarako jangela egokitua.

Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTELA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarri (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat **leku ezinhobea**.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

Garraioak

gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA  943 36 17 35 • 651 703 237

Berritasunen artean, trainerilla txapelketa

San Praixku jaietako antolatzaleek garai bateko ekitaldi bat berreskuratu dute, trainerilla txapelketa. Urriaren 12an jokatu da, Erriorearen Eguna-ren baitan, eta puntako arraun taldeak bertaratuko dira.

2019an ospatu zen azkene-koz. Geroztik ez da trainerilla txapelketarik antolatu Aginagako jaietan. Aurten ordea, ahalegin berezi bat egin da eta horri esker, inguruko arraun taldeak arituko dira lehian.

Mutilak zein neskak

Antolaketak eskaini dizkigun datuen arabera, sei arraun



Trainerilla Txapelketa urriaren 12an jokatu da, eguerdiko 11:45ean. Argazkia iazko otsailekoa da, Oriako Jaitsierakoa.

talde lehiatuko dira mutilen kategorian, eta beste sei nesken kategorian.

Txapelketa urriaren 12an larunbata jokatu da, eguerdiko 11:45ean hasita.

Trainerilla Txapelketa, urriak 12 larunbata, Aginagan Mutilen txapelketa:


Partehartzaileak: Hondarribia, Ondarroa, Orio, Getaria, San Juan, Kaiku.

Nesken txapelketa:


Partehartzaileak: Orio, Tolosa, San Juan, Hondarribia, Arraun Lagunak, Ondarroa. Antolatzalea: Aginagako Jai Batzordea.



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE** S.L.



Ondo pasa
jaietan!



943 362 146 AGINAGA

www.mariscosizaguirre.com



Sarrerak aldeztu erosi daitezke Arraten.

Urriaren 5ean, herri-afaria frontoian

Azken urteotan jende ugari batu da herri-afarian. Aurten urriaren 5ean ospatuko da, 21:00etan hasita, frontoian. Sarrerak Arraten erosi daitezke aldeztu aurre-

tik. Helduen tiketa 30 eurotan eskura daitezke; haurrena aldiz, 12 eurotan. Egunean bertan ere erosi ahal izango dira, baina garestiago, 40 eurotan.



Bide Batez taldea eta Dj Davila (irudian) arituko dira gazte-afariaren amaieran.

Urriaren 11n, gazte-afaria Atarialde elkartean

Gazte-afaria urriaren 11n egingo da Atarialde elkartean. Izena emateko epea urriaren 4an itxiko da eta Instagram sare sozialaren bitartez bideratu beharko da.

Ondoren kontzertua Bide Batez erromeria taldearekin Aginagako Eliza Zaharrean. Dj Davilak emango dio festari segida; goizeko 3:00etan hasiko duen saioarekin.











·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK
·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



Sekaña

ERRETEGIA

Ondo pasa
San Praixkutan!

AGINAGA • 943 362 773 - 667 694 769



Kulturguneko kideek Potxoengan egin zuten ikasturteko lehen batzarra.

Ikasturtearen hasierarekin batera Kulturgunearen lehen batzarra

Hasi da ikasturtea herriko hezkuntza zentro guztietan, eta horrekin batera, herriko eragileak ere oportetarik bueltatu eta martxan jartzen hasiak

dira. Kulturguneklarunbatean egin zuen ikasturte berriko lehen batzarra eta ekitaldi batzuk ere ekarri zituen arratsalderako.



Lauzpabost standup taldeko Iker Plazaola bakarrizketa egiten, Sutegi atarian.

Bakarrizketa iluntze aparta Lauzpabost taldearekin

Kulturguneko lagunek ikasturte hasiera indartsu hartu zuten eta Lauzpabost standup taldearen bakarrizketa saioa antolatu zuten. Esti Curiel,

Ander Malbadi, Iker Plazaola eta Julen Portillo umoristekin barre algararik ez zen falta izan Sutegi atarian larunbat arratsaldean.



Kantu taldeko lagunak frontoi ondoan, kantu jira hasi berritan.

Kantu jira ere bueltatu da oportetarik kantu taldekoekin

Opor osteko lehen kantu jira egin zuten larunbatean. Iraila izan arren, zira eta txamarrak jantzita atera ziren kantu taldeko lagunak herriko kalee-

tara, eta euriari inolako beldurrik gabe, kaleetan eta taberna inguruetan ibili ziren eguerdian bazkalordua iritsi bitartean.



Tenpora taldea Sutegin aritu zen aurreko igandean.

Tenpora talde tolosarrak 'Ama' diskoko kantak eskaini zituen Sutegin

Tenpora talde tolosarrak jazz eta pop doinuak eraman zituen oholtzara igande iluntzean Sutegin. Ama diskoaren aurkezpen jirako kontzertu bikai-

na izan zen eta herritarrek gogotik gozatu zuten abesti dantzagarrienekin eta hunkitzeko aukerarik ere ez zen falta izan.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
·paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ARANKA
BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

ZENDOIA
ENA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



Aisiola Hezitzaile Eskolak hezitzaile ikastaro bat eskainiko du Udarregi ikastolan. Irudian, aurreko edizio bateko partehartzaile batzuk.

"Hezitzaile tituluak gero eta pisu handiagoa du hezkuntza arloan"

JONE RUA ALKAIN AISIOLAKO ARDURADUNA

"Gure ikastaroaren bidez lortutako tituluak Eusko Jaurlaritzak homologatua da". Jone Rua Alkain Aisiolako arduradunak adierazi digunez, "elkarte eta erakunde desberdinekin lan egiteko gehien baloratzen den homologazioa".

Aisialdi hezitzaile ikastaroa, garai batean, bi ikasturtekoa izaten zen. Hau ere hala izango al da? Ala formakuntza osoa ikasturte bakarrean eskainiko da?

Aurten, ikastaroa ikasturte bakarrean egiteko aukera eskainiko dugu Udarregi ikastolan. Saioak astero izango direlarik, urritik maiatzera bitartean izango da ikastaroa.

Plaza kopurua mugatua da ala ez dago mugarik?

Taldeak osatzeko gutxienez 10 ikasle behar izaten ditugu. Gehieneko kopurua 25 pertsonakoa izango litzateke, eta hortik aurrera, bi talde osatu-

ko genituzke. Beraz, ez genuke inor kanpoan utziko.

Udarregi ikastolan bertan eskainiko da ikastaroa. Zein da jarraituko den metodologia?

Ikastaroa, bere osotasunean, bi zatitan banatzen da: bata atal teorikoa (urritik maiatzera bitarteko saioetan beteko litzatekeena) eta bestea atal praktikoa (udan bete beharreko praktikaldia). Atal teorikoaren barnean, dena den, edukiak lantzeko metodologia praktikoa eta ludikoak bideratzen ditugu. Hezitzaile ikastaroa bera haurrekin jolas eta ekintzak egiten ikastera zuzendua dagoenez, normala den moduan, gure

saioek antzekotasun handia izango dute gero errealitatean egingo diren jarduerekin.

Ikastaroa hezitzaile batek eskainiko du ala formatzaile ezberdinek parte hartuko dute ikastaroan?

Talde bakoitzeko formatzaile bat egon ohi da. Formatzaile

"URRIAREN 11N IKASTAROARI BURUZKO AURKEZPEN EKITALDIA EGINGO DUTE SUTEGIN"

bera arduratuko da saioak prestatu, dinamizatu eta ebaluatzeaz. Ikastaroak berak jarraikortasun egokia izan dezan, garrantzitsua iruditzen zaigu hasieratik amaierara arte formatzaile bera mantentzea. Gure formatzaileak, orokorrean, Aisiola zein Zirimolaren (Ikastolen Elkarteak aisialdi taldea) proiektu ezberdinetan lan egin duten eta hezitzaile modura esperientzia duten pertsonak dira.

Aisialdiko eskaintza gero eta zabalagoa da eta ez da soilik uda girora mugatzen, ezta?

Hezkuntza ez-formala gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da hezkuntzaren moduan. Hori dela eta, hezitzaile tituluak ere gero eta pisu handiagoa du hezkuntza arloko lan esparruetan.

Zuk esan bezala, aisialdiko lan eskaintzak uda girotik haratago doaz. Gure hezitzaile tituluak, haietan guztietan lan egitea ahalbidetuko luke.

Urriaren 11ko aurkezpen ekitaldian xehetasun gehiago eskainiko dituzue, ezta?

Hori da. Urriaren 11n egingo den aurkezpenean nahi duen oro gonbidatuta dago. Gure helburua bertan taldea osatu, egutegia adostu eta ikastaroa martxan jartzea izango da. Eta noski, edozein zalantza argitzeko bertan izango gara. Anima zaitezte!

Aisialdiko hezitzaile ikastaroari buruzko aurkezpena

- Urriak 11. ostirala.
- 18:30ean, Sutegin.
- Ikastaroa 17 urtetik gorako ikasleei zuzendua dago eta izen-ematea urriaren 25ean amaituko da. Dena den, xehetasun gehiago eskaini asmoz, aurkezpen ekitaldi bat egingo dute urriaren 11n Sutegin.
- Informazio gehiago: zirimola.eus
943 445 108

Kreditu aldaketak, Elkargunera edota Haur Eskolara bideratzeko

Zenbait kreditu aldaketa izan ziren irailaren 26ko osoko bilkurako protagonistak. Aldaketa hauek tarteko, udalerrri honek inoiz izandako aurrekontu handiena izaten amaituko du 2024. urtea agurtzerako; “zehazki, 19.295.800,58 eurokoa”.

Dena den, GAO n argitaratu eta jendaurrean egon beharko du erabakiak; alegaziorik ez bada, iragarkia berriz argitaratu eta behin-betiko bihurtuko da”. Haietako bi guztira 338.460 eurokoak izango dira. Aldaketa hauek udaletxeko teilatua berritzera (150.000 euro), udal brigadak baliatzen duen makineria berritzera, zehazkiago esanda lorezaintzako makina bat erostera (65.000 euro) edota udal barruko sarea instalatzeko programa informatikoa erostera (20.000 euro) bideratuko dituzte.

338.460 euroko inbertsioa da guztira, udal gobernu taldetik iragan asteko udalbatzarrean berri eman zuten bezala. Kultura saileko beste lehentasun batzuei erantzuteko, momentuz, aurretik bideratu ahal ez zingo den Ez Dok Amairu parkerako gordetako 110.000 euroak eta diruzaintza gerakinek 228.460 euro baliatuko dituzte aipaturiko kreditu aldaketa horiek gauzatzeko.

Elkargunea eta Haur Eskola

Halere, horiek ez dira diru gehien bilduko dituzten kreditu aldaketak izango. Izan ere, 2,7 milioi euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen udalbatzak gehien go osoz (EHBildu alde, EAJ aurka, PSE abstentzioa) iragan asteko osoko bilkuran. Kreditu aldaketa horri aurre egiteko mailegu bat eskatuko du Udalak. Diru kopuru hau bi proiektu garatzeko baliatuko dute; batetik, anbulatorio ondoko



2'7 milioi euroko kreditu aldaketa bat onartu zen azken plenoan.

zelaian kokatu asmo duten Elkargunerako eta baita haur eskola eraberritzeko ere.

Mailegu hau 2027an ordaintzen hasiko da Udala, egun ordaintzen segitzen duen Zumarte Musika Eskolako eraikina berritzeko eskatua zuena ordaintzen amaituko duen urte berean hain zuzen. Mailegu hau eskatzeari esker, udal gobernu taldetik aditzera eman zuten, “urtero aurrekontuetan zama bat eragingo badigu ere, udal honen aurrekontua kontuan hartuta ez digu eragotziko bestelako inbertsioak egin ahal izatea: orain arte ere hala izan da”. Zenbakitan, urtero 250.000-300.000 euro bideratu beharko dira udal aurrekontuetatik mailegu hau ordaintzera. Horregatik, udal gobernu taldearen esanetan, mailegu horrek bestelako inbertsioak egin ahal izatea erraztuko du.

PSE-ko bozeramaile Petri Romerok balekotzat jo zuen mailegua orain eskatzea baina

proiektuari buruzko zehaztasun gehiago jasotzeko nahia agertu zuen. Ildo beretik mintzatu zen baita EAJ udal taldea. “Ez dago ezer mahai gainean”, adierazi zuen Xabier Otxoa jeltzaleen bozeramaileak. Proiektu eta aurrekontu zehatzik gabe “abenturatzeko da” bere esanetan, kreditu aldaketa hori onartzea. Ez dute beharrezkoa ikusten modu horretan egitea, gogoraziti zuten, aurretik dirurik xahutzerik izan ez eta laster 2025eko udal aurrekontuak negoziatzeko unea helduko denean. Argi utzi nahi izan zuten, “Elkargunea babesten dugu”, zioen Otxoak.

KREDITU ALDAKETARI AURRE EGITEKO MAILEGU BAT ESKATUKO DU UDALAK

Guraso talde batek eginiko eskaerarekin bat eginez, gainera, haur eskola eremu berean integratzeari alde agertu zen EAJ. Proiektuarekiko aurkatasunagatik ez, “moduak ez dira egokiak” adieraziz aurka bozkatuko zutela iragarri zuten.

Horri erantzunez, udal gobernu taldetik jakitera eman zuten, proiektu zehatza osatzeko lanean ari direla. Gogoan izan, Elkarguneari egitasmoa diseinatzeko negu eta udaberri partean Elhuyarrek dinamizaturiko parte hartze prozesua egin zela herrian. Prozesu horretan jasotakoan oinarrituko da egitasmoa. “Elkarguneari partaidetza prozesuan oso presente egon da alde ekonomikoa: oraindik ez daukagu proiektu arkitektonikorik, baina badakigu gehienez ere zeri erantzun diezaioketun”, udal gobernu taldearen esanetan.

Kreditu aldaketa hauek 2024ko udal aurrekontuen partiden garapenari eginiko jarraipenetik dator. Urtea amaitu arteko aurreikuspenak egitetik, hain zuzen.

Egoera ekonomikoa

Likidezia arazorik ez du. Hala berretsi zuen udal kontuhartzaileak irailaren 26an udalbatzak eginiko osoko ohiko bilkuran. Hiruhilero egiten duten moduan, udalbatzaren iragan asteko bilkura baliatu zuten 2024ko 2. hiruhilekoko ordaintzen batz besteko epeari eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko argibideak emateko, hau da, iragan apirilaren 1etik ekainaren 30eko epealdiari dagozkion xehetasunak. Ordaintzen epea batz beste sei eguneko izan zen urteko bigarren hiruhilekoan, hilabeteko epealdiaren oso azpitik. Bestalde, aurrekontuaren exekuzioari dagokionean, ekainaren 30era arte aurreikusitako baino sarrera gehiago eta gastuak izazko baino apalagoak izan zirela berri eman zuten. Ondorioz, aipatu moduan, “likidezia handiagoa” dela.



Ameba talde usurbildarra gaueko kontzertuan arituko da.

Ernaik elkartasun jaialdia iragarri du urriaren 19rako

Buruntzaldeko gazte independentisten elkartasun jaialdia iragarri dute urriaren 19rako Andoainen. "Gorde data!", gogorarazi dute deitzaileek.

Iragarri dutenez, "gazte borroka geldiezina dela aldarrikatzeke, Buruntzaldeko gazte independentistok urriaren 19an Andoainen elkartuko gara". Eskualde mailako topaketa honetan hitzaldia, bazkaria, manifestazio edota kontzertu gaua iragarri dituz-

te. Usurbilgo zenbait musikariek parte hartuko dute egunean zehar; Amebak kontzertu gauean eta Anuk eta Elenek bazkaloste girotuan.

Afarirako nahiz kontzertu gauerako txartelak Aitzagan eskuratu ahalko direla berri eman du Usurbilgo Ernaik.

Buruntzaldeko gazte independentisten elkartasun jaialdia

Urriak 19 larunbata, Andoainen

- 11:00 Hitzaldia gaztetxean: "Euskal Herria independentziara, zergatik eta zertarako?". Hizlariak: June Iartza eta Aritz Lopez.
- 14:30 Bazkaria Beheko plazan (euria bada, merkatuan egingo da).
- Ondoren, bazkaloste musikatua Usurbilgo Anuk eta Elenerekin.
- 18:30 "Bat eginez independentziara" aldarripean, manifestazioa abiatuko da Goiko plazatik.
- Ondoren, trikutipoteoa.
- 22:00 Kontzertua gaztetxean, Usurbilgo Ameba, Pertz eta Rebel Noise taldeekin batera.
- Ondoren, Dj La Fulanaren txanda izango da.

Oharrak:

- Gaztetxea 21:00etan irekiko da eta afaria emango dute.
- Txartelak: 15 eurotan (bazkarirako eta kontzerturako) edo 10 eurotan (kontzertuetarako soilik) Usurbilgo Aitzagan, Hernaniko Garinen, Lasarteko Ilargin eta Andoaingo Irunberrin.

"Goazen kalera", Santuenean

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Urriaren 8koa Santuenean egingo da. 10:30ean batuko dira bertako frontoian. Amaieran, hamai-ketakoa banatu ohi da.

Abenduaren 24ko bira antolatzen hasteko deia

Mari Domingiri eta Olentzerori Usurbilgo herriak abenduaren 24an egin ohi dion harrera prestatzen hasteko lehen bilera eguna finkatu dute antolatzaileek. Urriaren 3an bilduko dira, arratsaldeko 15:00etan Potxoenean.

Usurbil K.E.-ren zuzendaritza, errelebo beharrean

Eskubaloi taldean, zuzendaritza berritzeko garaia iritsi da. Gaur egun indarrean dagoen taldeak "beste urte baterako konpromisoa hartua duenez, erreleboa prestatzen hasteko momentua dela uste du. Deialdi hau klubeko jokalarien gurasoei, jokalariei eta eskubaloi zaleei luzatu nahi diezuegu. Aurtengo denboraldia baliatu nahiko genuke erreleboa prestatzen hasteko, kide berriak datorren denboraldian jada prest egon daitezen lanean hasteko! Anima zaitzete! Harremanetarako, hona idatzi: usurbilkirolelkartea@gmail.com".

Asier Azpiroz txanda, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Asteburuan egingo dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako azken saioak. Urriaren 5ean Azpeitian jokatu den saioan Asier Azpiroz Iztueta zubieta-rra arituko da. Aitor Tatiegi Loidi, German Urteaga Garmendia, Haizea Arana Carde-

nal, Maialen Akizu Bidegain eta Maider Arregi Markuleta izango ditu kantukide, 17:00etan Soreasu antzokian.

Irabazlea zuzenean final-laurdenetarako sailkatuko da. "Gainontzekoek puntuazioaren arabera izango dute horretarako aukera".



Asier Azpiroz Iztueta Azpeitian arituko da larunbat honetan.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Usurbil 1936, Usurbilgo Udala eta 650 Usurbil Bizi eragileetako ordezkariak.

1936ko gerraren oroimenean barrena ibilaldia larunbatean

"Gerraren oroimena" ibilbidea osatzeko aukera izango da estreinakoz larunbatean, Usurbil 1936 elkartearen, Usurbilgo Udalaren eta 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren eskutik.

1936ko gerrak Usurbilgo erdigunean utzitako arrastoa ibilbide baten bidez ezagutzeko aukera izango da estreinakoz, urriaren 5ean 18:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko den bisita gidatuan. Usurbil 1936 elkarteak, Usurbilgo Udalak eta 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak sustaturiko ekimen honetarako talde txiki baten-tzakoa lekua egongo da. Beraz, bizkor izena emateko deia egin zuten ibilbide honen aste hasierako aurkezpenean. Euskaraz egingo den ordubete inguruko doako bisitarako izena 650usurbilbizi.eus atarian eman ahal da.

Zortzi geltoki izango ditu ibilbideak, dagoeneko totem eta panelekin seinalezatuak daudenak. Larunbateko bisita eta aurrerago egingo den beste bat, Usurbil 1936 elkarteko kideekin egingo da, hortik aurrera tarteka antolatuko direnak 650 Usurbil Bizi herri egitasmoko gidekin. Halere, aipatu euskarri horietan egingo diren QR kodeei esker ibilaldi hau noiznahi osatu ahal da. Informazio gehiago

usurbil1936.eus atarian jaso ahal da gaian sakondu nahi duenak. Ibilaldian garai hartan protagonismoa izan zuten eraikinak, kaleak, lekuek izango dute protagonismoa, baita kolpistak herrira sartu aurretik eta horren osteko gertaerak ere. Herriko beste txoko batzuetako aipamenak ere egingo dira, nahiz eta ibilaldia herri erdigunean egingo den. Usurbil 1936 elkartetik ezinbestekotzat jo zuten aste hasierako aurkezpenean Udalak eskainitako laguntza, udal talde politiko guztien onespina izan duena. "Gure asmoa erakusketa handi bat egitea zen, baina efimeroa izango zela jabetu ginen", Usurbil 1936 elkartekoen esanetan.

"8 GELTOKI IZANGO DITU IBILBIDEAK, DAGOENKO TOTEM ETA PANELEKIN SEINALEZTATUAK DAUDENAK"

Ibilaldi hau finkoa izango da, ordea, oroimen historikoa berreskuratzeko elkartearen esanetan, bidelagun izan duten udaleko alkateak berak proposatu bezalaxe.

Memoria, herri eraikuntzarako
Agurtzane Solaberrietak aurkezpenean nabarmendu zenez, orain arte alor honetan egindako lanean sakondu eta 1936ko gerrak herri honetan utzitako arrastoa beste modu batean ezagutzeko aukera izango da. Gogoan izan, lau urteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zutela Udalak eta Usurbil 1936 elkarteak 2020an. Tarte honetan, hamaika ekimen bideratu dituzte; dokumentazio lana, lekukotza bilketak, indusketak, webgunearen sorrera... Ekimen denak helburu berarekin bideratuak; "oroimen historikoa berreskuratu eta transmititzea, ahanzturan gera ez dadin", alkateak nabarmendu du. Ezinbestekotzat jo zuten egian oinarrituriko herri memoria aldarrikatzeaz gain, urteotan egin bezala, hori lantzea herriaren eraikuntzarako. Udalak 100.000 euroko ekarpena egin du. Hitzarmenaren irau-naldia amaitzean den honetan, oso emankortzat jo zuten alkateak elkarlan hau, aldeek hartutako konpromisoak beteta amaituko dela iragarri zuten; hitzarmena, "elkarlana ez". Horregatik zioenez, "espero dut herri hau gai izatea bere memoriaren berreskurapenean jarraitzeko. Memoria ezinbesteko oinarria da bizikidetzarako, berriz halakorik ez gertatzeko berme nagusia".

Hitzaldia
"Lurrazpiko mintzoa" hitzaldia antolatu du, bestalde, Usurbil 1936 elkarteak urriaren 15ean 19:00etan Sutegin. Andatzako indusketetan parte hartutako Josu Santamari-na arkeologoa lan horietan eginiko aurkikuntzen berri emango du.

Zumeta'24 erakusketa, Bilboren erdigunean

Zumetaren koadroak, temperak eta serigrafia bat aurkituko dituzue Bilboko Lumbreras arte galerian. "Erakusketa bat antolatzeak artista bera ez dagoenean nolabait teko ziurgabetasuna sortzen du", Usoa Zumetak ohartarazi digunez. "Artistak beti erakutsi nahi izaten du ekointzitako azkena, normalean bilduma beraren parte dena, eta horrek koherentzia ematen dio bere lanari. Erakusketa honetan aurkeztu dugun obraren aukeraketa Juan Manuel Lumbreras, Begoña Lumbreras eta nire artean egin dugu".

"Zumeta kolorea da"
Serie ezberdinetako lanak hautatu dituzte. "Lehen ar-telana 2006 urtearen ingurukoa da, eta 2020 urtekoa azkena. Hala ere, uste dut aukeraketa sendo honetan koherentzia horri eustea lortu dugula, Zumeta kolorea delako, baina batez ere indarra da eta lan hauek guztiak horren erakusle dira".

Zumeta'24 erakusketa Bilbon

- Irailak 12-Urriak 17.
- Juan Manuel Lumbreras arte galerian. Henao kalea, 3.
- Web orrialdea: galerialumbreras.com



Bilboko erakusketako artelan bat.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan sukaldari bila gabiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunerok klase partikularrak emateko. 647742588

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

Pertsona helduak zaintzen, garbiketak egiten izan elkarte zein etxe

partikularretan, lan bila nabil. Esperimentzia daukat 631 654 743.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Astean zehar klase partikularrak emateko prest nago, LH zein DBHko ikasleei, astean pare bat orduz. 684070756

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperimentzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

BESTELAKOAK

Gure Pakea jubilatutako elkartearen inguruan urreko belarritako bat galdu dugu. Aurkitzen baduzue eskertuko genuke telefono zenbaki honetara deitzea: 666 894 283.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

ZORION AGURRAK



Zorionak Amane! 7 urte!! Zorionak etxeko printzesari. Muxu potolo bat eta besarkada handi bat aitatxo eta amatxoren partez.

Pilota partidak

Urriak 4, ostirala

18:30 Usurbilgo frontoian:

Gipuzkoako jubenil 2.mailan, eskuz binaka:

-Pagazpe 2
-Eibar 1

-Pagazpe 1
-Behar Zana 2

Eskubaloia Oiardon

Urriak 5, larunbata

10:00 Kadete neskek:

Usurbil KE-Dikar Bergara KE

11:45 Kadete mutilak:

-Usurbil KE A

-Alkain Bidasoa Irun

13:00 Infantil neskek:

-Lagunarteko partida.

16:00 Jubenil mutilak:

-Usurbil KE

-Autopia Talleres OET

18:00 Jubenil neskek:

-Usurbil KE

-Hernani Kem One E.T.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 03	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 04	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 05	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astearte, 08	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Asteazkena, 09	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 11	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 12	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 13	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I | Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Futbol partidak

Urriak 5 larunbata, Haranen

• 09:00 Infantil neskek:

Usurbil F.T. B-Hernani C.D.

• 09:00 Infantil neskek:

Usurbil F.T.-Hernani C.D. B

• 10:30 Infantil txikiak:

Usurbil F.T.-Danena K.E.

• 12:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Hernani C.D. B

• 15:30 Jubenilak:

Usurbil F.T. B-Danena K.E. C

• 17:45 Ohorezko mailako jubenilak: Usurbil F.T.-Ordizia K.E.

Urriak 5 larunbata, kanpoan

• 11:00 Infantil mutilak, Azpeitian:

Ikasberri K.E."B-Usurbil F.T.

• 15:15 Infantil mutilak,

Donostiako Matigoxotegin:

Kostkas C.D. D-Usurbil F.T. C

• 16:00 Gorengoen neskek, Ordizian:

Goierri Gorri F.K. B-Usurbil F.T.

• 17:30 Erregionalak, Tolosan:

Tolosa CF-Usurbil F.T. B

• 18:00 Gorengoen mutilak,

Zizurkilen:

Danena K.E.-Usurbil F.T.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 04

AGINAGA Aginagako jaiak:
San Praixku Eguna

Egitaraua, 10. orrialdean.

ATXEGALDE Alperroburuko
hormairudiaren inaugurazioa

18:30ean, Buztinzuloren eskutik.

LARUNBATA 05

AGINAGA Aginagako jaiak:
Oilasko Biltzaileen Eguna

Egitaraua, 10. orrialdean.

KALEZAR Emakumeon
Topaketa, Emakumeen Etxean

11:00-13:00 Talde dinamika.

13:00 Bea Egizabal umoregilea.

14:00 Luntxa.

IGANDEA 06

AGINAGA Aginagako jaiak

Egitaraua, 10. orrialdean.

OSTIRALA 11

AGINAGA Aginagako jaiak:
Umeen eta Gazteen Eguna

Egitaraua, 10. orrialdean.

USURBIL Hezitzaile
ikastaroari buruzko hitzaldiaIkastaroa 17 urtetik gorako
ikasleei zuzendua dago.

18:30 Sutejin.



Bea Egizabal umoregilea Emakumeen Etxean arituko da larunbat honetan.

Emakumeon Topaketa

Herriko emakumeek elkar ezagutu eta sareak jostea dute helburu. Lehenbizi, Elhuyarrek bideraturiko talde dinamika bat egingo dute eta horren baitan Emakumeon Etxeko webgunea aurkeztuko dute. Dagoeneko, egunotan jarri dituzte sare sozialak martxan. Umorez eta jan-edanarekin borobilduko dute goiza.

Urriak 5, larunbata

- 11:00-13:00 Talde dinamika, Elhuyarrek gidatuta, eta web orriaren aurkezpena.
- 13:00 Bea Egizabal umoregilearen emanaldia.
- 14:00 Luntxa.
- Tokia: Emakumeon Etxea.
- Izen-ematea: 943 377 112 / emakumeonetxea@usurbil.eus

Alperroburuko muralaren inaugurazioa

Ostiral honetan arratsaldeko 18:30ean, Alperroburu kalean kokatu berri den hormairudiaren aurkezpena egingo du Buztinzulok. Bertara hurbiltzeko deia egin du zeramika taldeak. Bide batez, gogoan izan zeramika tailerra urriaren 7an hasiko dela. Astelehenetan batuko dira, 17:30etik 19:30era. Izen-ematea ordea, ostiral honetan amaituko da. "Anima zaitetz eta jarri gurekin harremanetan, buztinzulo@gmail.com posta elektronikoa".

Sagar eta Sagardo Kultura

Urriak 17, osteguna

- 18:30 Sagar dultzea egiteko tailerra Aitzagan.

Urriak 20, igandea

- 10:00-13:00 Bertso ibilaldia Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariekin. Aginagako frontoitik abiatuta.

Urriak 24, osteguna

- 18:00-19:30 "Izotz sagardoa zer da?" ikastaroa eta dastaketa Aginagako Eliza Zaharrean, Egoitz Zapiainekin.

Azaroak 14, osteguna

- 18:00-19:30 "Sagastien bioaniztasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanz Azkuerekin.

Azaroak 28, osteguna

- 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

Izen-ematea:sagardoa@ni.eus
630 938 027.

Artzi
Patxi Latexea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



Kronika

ERREMONTA JAIALDIA

24-10-11 17:00ETATIK 21:00AK ARTE
GALARRETA JAI-ALAI

SARRERA 14€
PINTXOA + EDARIA
*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

Sarrerak salgai Kronikan eta egunean bertan Galarretan




- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL info@arankaberrikuntzak.com

URRIAK 18, Ostirala 19:30etan, Sutegiko auditorioan

**ZINZIN
DURRUN
KARRATZ**

oskar alegriaren film bat



Sarrerak: usurbilkultura.eus
6 euro (bazkideek 4 euro, NOAUA!ko egoitzan)

"Ahaztutako bide bat. Etxeko kamera zaharra. Isiltasuna.

Zinemagile batek bere herriko artzainek mendira egiten zuten transhumantziaren bidea berreskuratzea erabakitzen du, baina ez du aurkitzen ibilbide zehatza adierazteko lekuko bizirik. Bere ideia ere bere familiaren super-8 kamera zaharrarekin filmatzea da, baina 41 urte erabili gabe igaro ondoren, ez duela soinurik jasotzen ohartzen da. Ahaztutako bidea eta kamera isila bihurtuko dira, Paolo izeneko astoarekin batera, oroitzapenez, galderaz eta isiltasunez betetako bidaia baten protagonistak".

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



ixiltasuna bidea oroitzapena hontzuria ama behelainoa garia sua mendia lo kanta